

**AGUREENTZAKO ASTEASUKO “JULIAN LIZARDI”
TUTORETZAPEKO BASERRIAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUDIA**

1. ZERGATIAK

Gizarte Zerbitzuetan Udalarari dagozkion eskumenen baitan, eta, bereziki, hirugarren adineko pertsonak zaintzeko eskumenen baitan, Asteasuko Udalak hirugarren adinekoak zaintzeko, tutoretzapeko baserria sortu du. Baserria Udalak antolatu, kudeatu eta administratuko du.

Asteasuko tutoretzapeko baserria beste zerbitzu publiko bat gehiago da, beharreen dauden adinekoei laguntzeko eskaerari erantzuteko.

Tutoretzapeko baserria sortu da adinekoentzat bizitoki eta bizikidetzarako gune bihurtzeko, ohiko zahar-etxeetatik bestelakoa.

Agureak beraien ingurunean mantentzeko da, beraien esparruan, norbanako integrazioa eta kolektiboa errazteko eta herrian eta ingurunean ere ohitzeko.

Tutoretzapeko bizitokia da fisiko eta psikikoki ondo egon eta kanpoko laguntzarik behar ez duten pertsonentzat: etxean jarraitzeko zailtasunak dituztelako, etxea hondatu zaielako, edo bizikidetzara arazoak dituztelako, edo etxea utzi beharra gertatu zaielako edo han bizitzeko baliabide ekonomiko edo familia- eta gizarte-baliabiderik ez dutelako.

I. TITULUA. TUTORETZAPEKO BASERRIAREN ANTOLAMENDUA

I. atala. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Tutoretzapeko baserria Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sareko ekipamendua da, jendearentzat bizitoki izateko. Udal Gizarte Zerbitzuek hirugarren adinekoen bizi-kalitatea sustatzeko ezarritako ildoan baliabide espezifikoa da.

2. artikulua. Helburua da hirugarren adinekoei bizikidetzarako aukera ematea ohiko gizarte-ingurunetik atera gabe, komunitateko bizitzan parte hartzeko independentzi pertsonala izateko laguntzak emanez. HELBURUA da adineko pertsonen oinarritzko beharrak betetzea: bizitokia eta otorduak. Bizitoki integratuaren aukera hori emanda bizikidetzeta esparru komunitario eta normalizatuan jasoko dute laguntza.

3. artikulua. Tutoretzapeko bizitokia da fisiko eta psikikoki ondo egon eta kanpoko laguntzarik behar ez duten pertsonentzat: etxean mantentzeko zailtasunak dituztelako, etxea hondatu zaielako, edo bizikidetzeta arazoak dituztelako, edo etxea utzi beharra gertatu zaielako edo han bizitzeko baliabide ekonomiko edo famili- eta gizarte-baliabiderik ez dutelako.

4. artikulua. Tutoretzapeko baserriko egoiliarrek dagokien etxez-etxekeo laguntza jasoko dute, besteak beste: mantenu osoa, etxebizitza garbitzea, arropa garbitu eta lisatzea eta banako segimendua egitea.

II. Kapituluua. GOBERNU, ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK

5. artikulua. Asteasuko Udalak, Gizarte Ongizate Batzordearen bidez kudeatu eta administratuko du egoitza eta ondo funtzionatzeko Udalak berak egingo du zaintza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren laguntzarekin. Azken honek aldizkako ikuskaritza egingo du.

II. TITULUA – EGOILIARRAK

I. atala. SARTZEKO BALDINTZAK

Asteasun bizi direnek izango dute lehentasuna.

Herrikoekin batera, kanpotarrak onartzeko aukera ere aztertuko da. Beti ere, dagokien herriko Udal konpromiso ekonomikoa eskatuko da, VI. ERANSKINA, eta baita VII. ERANSKINEAN adierazitako konpromisoa ere.

Zein izan daitezke egoiliar:

60 urtetik gorakoak.

Asteasun bizi direnak, eta eskaera egin aurreko bi urteetan bertan erroldatuta egon direnak. Gizarte Ongizate Batzordeak egoki irizten badio, baldintza hori betetzen ez dutenak ere sar daitezke egoitzan.

Gaixotasun kutsakorrik ez dutenak.

Eguneroko ohiko ekintzak bakarrik egiteko moduan daudenak fisikoki zein psikikoki. SAKONTZEN 0 puntutik 3 puntura.

Bizikidetza normalizatua errazteko moduko gizabidezko jokaera, ohitura pertsonal eta garbitasun ohiturak dituztenak

Aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duten pertsonak onartu edo ez Udalbatzak erabakiko du, aurrez Asteasuko Udaleko Gizarte Ongizate Batzordearen txostena ikusita. Batzordeak, aurrez, eskatzailearen herriko gizarte-laguntzaileak egindako txostena izango du erabakiaren oinarri.

II. atala – EGOILIARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

6. artikulua. Araudi honen eta bizikidetza-arauen mugen barruan, bizitza-askatasun osoa izango dute egoiliarrek. Eta eskubidea izango dute, baita ere

- a) Baserriaren erabilpenaz gozatzeko.
- b) Eguneroko lanetan behar duten laguntza izateko.
- c) Hartarako jarritako orduetan bisitak izateko.
- d) Oporrak egiteko; gehienez urtean 45 egun. Edozein modutan, egoiliarrak bizitokian ez dagoen egunetan normalean ordaintzen duenaren erdia ordainduko du.
- e) Komunitate-bizitzako funtzionamenduan parte hartzeko bere ordezkaria aukeratzeko, hartarako ezarritako ordezkartza-organoen bidez.
- f) Halakorik behar izanez gero, gizarte-laguntzaileak kudeatuko ditu egoiliarrek eskatutako zerbitzuak eta gizarte laguntzak.
- g) Gizarte Egoitzako zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko eta hango jardueraz gozatzeko.
- h) Esleitzen dioten plazaren jabe egiteko; esleipena ez da betiko.
- i) Otorduak egiteko.

Otorduak jakinarazi egingo dira eta, ahal den neurrian, menuak medikuen esanetara egingo dira, egoiliarren adinaren eta egoera fisikoaren arabera.

- j) Nahi dutenean etxetik ateratzeko, nora eta zenbatsu denborarako doazen esanda.
- k) Ezkontzaz edo antzeko harremanez bat eginek, gela bera erabiltzeko.
- l) Gelako eta ate-nagusiko giltzaren jabe izateko.

7. artikulua. Tutoretzapeko baserriko egoiliarrek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Barne-araudian ezarritako bizikidetza-arauak betetzea. Elkar errespetatu, elkarrekin tolerantak izan eta elkarri laguntzeko prest egon behar dute.
- b) Baserria eta ekipamenduak zaintzea.
- c) Bizitokitik joan behar badute, hilabete aurretik jakinarazi behar diote gizarte-laguntzaileari.
- d) Egoitzan bizitzeko bakoitzari dagokiona zintzo ordaintzea. Egoiliarrek, diru-sarreretan aldaketarik izanez gero, haren berri eman behar dute ordaindu beharrekoa egoera berrira egokitzeko.
- e) Ahal duten neurrian etxeko lanetan laguntzea, tutoretzapeko baserriak ondo funtziona dezan: instalazioak txukun mantentzea eta emandako altzariak, gauzak eta arropak etxekoak bezala zaintzea.

III. atala – FALTAK ETA ZIGORRAK

8. artikulua. Egoiliarrek, nahita, baserriko bizikidetza oztopatzen badute, beste egoiliarren eta langileen eskubideak errespetatzen ez badituzte, edo baserrian sartzeko gezurretan aritzen badira, zigorra jasoko dute.

Orokorrean, Araudi honetako edozein arau ez betetzea falta bat da. Faltak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Zigorra izan daiteke araudia bete ez duena behin-behingoaz edo behin betiko bizitokitik bidaltzea.

9. artikulua. Tutoretzapeko baserriko egoiliarra bidali daiteke:

- a) Egoiliarrak hala nahita, berak argi eta garbi eskatuta.
- b) Zigor baten ondorioz bidalita.
- c) Hilda.
- d) Baserritik askotan falta izaten bada, arrazoitu gabe, oporretako 45 egunak kenduta.
- e) Dagokion hileroko ordainketa egiten ez badu.
- f) Baserrian sartzen utzi zioten baldintzak aldatzen badira.

10. artikulua. Faltak eta zigorrak.

Tutoretzapeko baserriko egoiliarren ardura izango dira egoiliarren erruz gertatutako instalazioetako kalteak eta baita sortzen diren ordena arazoak ere.

Faltak izan daitezke oso larriak, larriak eta arinak.

Falta oso larriak:

- a) Hiru falta larri edo gehiago berriz egitea.
- b) Tutoretzapeko baserriko egoiliarrak edo langileak fisikoki erasotzea edo tratatu txarrak ematea.
- c) Egoiliarrak, haren mesederako, gezurra esatea edo datuak ezkutzea.
- d) Bizitokian kalteak sortzea edo bizikidetza argi oztopatzea.

Falta larriak:

- a) Hiru falta arin edo gehiago egitea.
- b) Bizitokiko edozein gauza, langileen edo beste egoiliarren gauzak ostea.
- c) Dagokion tasaren ordainketa atzeratzea, arrazoirik gabe.
- d) Bizitokia egoiliarren senide edo lagunek erabiltzea, behin-behingo bada ere.

Falta arinak:

- a) Egoiliarrenganako edo langileenganako errespetu falta, tratu aldrebesa, neurritz kanpoko jokabideak eta hitzak...
- b) Altzariak, tresnak, gauzak edo instalazioak erabiltzerakoan gora beherak izatea edo zabar jokatzea, adinak edo egoera fisikoak eraginda ez bada.

11. artikulua. Aipatutako faltaren bat egiten dutenei jarriko zaizkien zigorrak honako hauek dira:

Falta oso larriak:

Tutoretzapeko baseritik bidaltzea, behin-behingo, hilabetetik sei hilabetera bitartean. Zenbaitetan, gerta daiteke behin-betiko ere bidaltzea.

Falta larriak:

Bidaltzeko ohartarazpena.
Hiru hilabete baino gutxiagorako bidaltzea.

Falta arinak:

Hitzezko edo idatzizko kargu-hartzeak.

12. artikulua –Falta arinak bi hilabetean preskribituko dira, larriak lau hilabetean eta oso larriak urtebetean; baldin eta, beti ere, interesdunari espedientea ireki zaiola jakinarazi ez bazaio edo, falta arinen kasuan, zigorrik jarri ez bazaio.

13. artikulua. Falta arinak Udaleko gizarte-laguntzaileak erabakiko ditu.

Falta larriak Gizarte Ongizateko Informazio Batzordeak erabakiko ditu, eta falta oso larriak, berriz, Udaleko Gobernu Batzordeak.

III. TITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

14. artikulua. Unitate ekonomikoa osatzen dute egoiliarraren diru-sarrerak eta bere ezkontidearenak.

Egoiliarrak dituen diru-sarreraren eta ondasunen araberako kuota ordainduko du, kontuan izanda pentsioak, errentak, lansariak, e.a....

Diru-sarreratzat hartzen dira:

- a) Laneko etekinak, pentsioetatik edo gizarte laguntzetatik jasotakoak (aparteko ordainketak ez dira kontuan hartzen)
- b) Kapital higigarri eta higiezinen errendimenduak.
- c) Unitate ekonomikoaren ondare higigarri eta higiezina.

Kapital higigarriak dira kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio-funtsak edo pentsio-funtsak.

Kapital higiezinak dira landa-ondareak eta hiri-lurreko ondareak.

Ez da ondareztat hartuko ohiko bizilekua, baldin eta ezkontidea han bizi bada.

Egoiliarrek ordainduko dute:

TM Dagokien hileko/kostua Egoiliarraren alde erreserbatuko da dagokion hileroko LGSaren %20.

Defizita ordaintzen ez badu, plazaren kostua osorik ordaintzen ez badu, eta finantza-ondasunak baditu (dirutan, aurrezki kontutan, e.a...), aipatu defizita ordainduko du, gehienez 3.005,06 € beretzat geratuta.

Patrimonio ondasunak izan eta kuota osoa ordaintzen ez duena, Udalaren alde zordunduko da.

Eskatzailearen jatorrizko Udalaren ardura izango da ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen hileroko gastua ordaintzea.

IV. TITULUA. ONARPEN-PROZEDURA

1. artikulua. Tutoretzapeko baserrian plaza hartzeko hautagaiak onartzeko prozedura hasteko, interesatuak eskaera egin behar du eredu normalizatuaren bitartez. Eskaeran atal bat egongo da zuzeneko senideak (ezkontidea eta zuzeneko aurrekoak eta ondorengoak) badituen ala ez adierazteko, eta baldin baditu, haien identifikazio-datuak emateko. Eskaera, dokumentazio guztiarekin batera eta Ongizate Batzordeko lehendakariari zuzendua, Asteasuko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan aurkeztuko da. Eskaera eskatzailearen jatorrizko Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak izapidetu behar du, eta haren ardura izango da, baita ere, egoiliarra ezinduz gero, laguntza-egoitza batean sartzeko izapideak egitea.

2. artikulua. Behin tutoretzapeko ostatuan, hautagaik 90 eguneko proba-denboraldia pasa beharko du. Denbora hori pasa ondoren ikusten bada egoiliarrak ez daukala egokitzeko arazoren bat eragiten dioten egoera pertsonal edo gorabehera psikiko eta fisikorik, hautagaia egoiliar moduan hartuko da.

3. artikulua. Eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

Interesatuak sinatutako eskaera-orria.

Eskatzailearen eta, hala badagokio, ezkontidearen NAREN fotokopiak.

Gizarte Segurantzako txartelaren fotokopia.

Diru-sarreraren eta ondarearen frogagiriak, honako datu hauekin:

Abian dagoen ekitaldian jasotako pentsioa(k).

Kapital higiezinaren (errentak...) edo higigarrien (aurreko ekitaldiko interesen laburpena) errendimenduak. Hala badagokio, azkeneko errenta-aitorpenaren agiria edo aitortzen egiteko beharrik ez duela azaltzen duen ziurtagiria.

Azken 5 urtetan ondarearik eskualdatu ez duela ziurtatzen duen Ogasuneko Ordezkaritzaren agiria.

Ogasuneko Ordezkaritzak egindako ondarearen ziurtagiria.

Mediku-txostena, adierazten duena hautagaiak ez duela bizikidetzara-arauek oztopatu ditzakeen gaixotasun kutsakor edo nahaste psikikorik.

SAKONTZEN mendetasun-balioespena.

Gizarte-txostena, eskatzailearen jatorrizko Udaleko gizarte-langileak egindakoa.

Eskatzailearen Udalaren konpromiso ekonomikoa, Udalak sinatuta (VI. ERANSKINA).

Eskatzailearen jatorrizko Udalaren konpromisoa, edozein zerbitzu behar izanez gero kudeaketa administratibo eta ekonomikoa bere gain hartzeko (VII. ERANSKINA).

Udalak interesezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

Hautagaia onartu ondoren, plazak betetzeko itxaron- eta erreserba-zerrendak Asteasuko Udaleko Ongizate Batzordeak egingo ditu.

BAREMOAREN APLIKAZIOA (I. ERANSKINA)

Udalak jasotzen duen dokumentazioarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kasua balioetsiko du, onarpen-baremoa oinarri. Alderdi guztiak balioetsi ondoren (gizarte- eta familia-egoera, etxebizitza, e.a.), bakoitzean lortutako balioak tutoretzapeko etxebizitzetzi dagozkien faktore zuzentzaileekin bidertuko dira; hauek dira faktore zuzentzaileak:

Gizarte- eta familia-egoera.....	3
Ezintasun fisikoa eta psikikoa.....	0
(SAKONTZEN eskala)	
Etxebizitzaren egoera.....	3
Egoera ekonomikoa	2
Bizilekua udalerrian.....	3
Beste egoera batzuk.....	0,5

SAKONTZEN eskalan 3tik gora sailkatuta dauden kasuak ez dira kontuan hartzen.

Eskaerak Asteasuko Udaleko gizarte-langileak aztertu eta balioetsiko ditu, adostutako onarpen-baremoa medio; onartu, baztertu eta osoko bilkurara aurkeztu, berriz, Ongizate Batzordeak egin behar du.

Egoiliarrek ez dute etxebizitzaren gaineko eskubiderik: ostatu hartzeko eskubidea eta Udalak egoiliarren beharren eta banaketaren arabera emandako eskubide espezifikoa bakarrik dituzte; eskubide horiek gainera, aldatu egin daitezke.

V. TITULUA. ESKUMEN BANAKETA

Udala (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak)

Baliabideari dagokionez:

Tutoretzapeko baserria kudeatzea.

Egokitzapena, ekipamendua eta mantentze-lana finantzatzea.

Funtzionamenduaren eta alderdi ekonomikoaren segimendua egitea.

Egituraren eta mantentze-lanen egoeraren segimendua egitea.

Udalerrian tutoretzapeko baserria erabiltzeko dauden beharrak detektatzea.

Hobekuntzak, aldaketak, egokitzapenak edo zerbitzuak hedatzea proposatzea.

Plazen urteko kostua zehaztea.
Barne-erregimeneko araudia onartzea.
Ebaluatzea.

Erabiltzaileei dagokienez:

Baliabidea erabili ahal izateko informazioa (edukia, laguntza eta baldintzak) eta aholkuak ematea.

Eskaerak jasotzea.

Behar den dokumentazioa biltzea eta eskaera aztertzea, balioestea eta ebaztea.

Parte hartzen duten alderdien erregimen ekonomikoa zehaztea.

Egoiliarrei, banaka eta taldeka, arreta eta laguntza eskaintzea eta beharrezko kudeaketan aurrera eramatea, arlo guztietan (osasun- eta gizarte-arloan, arlo pertsonalean, e.a.).

Dauden prestazio eta baliabideekin koordinatuta egotea, behar denean beste egoitzak aukera bat eskura izateko.

Baserriko langileekin koordinatuta egotea, bai egoiliarrei, bai funtzionamenduari dagokionez.

Itxaron zerrendak egitea eta sailkatzea eta plazak betetzea.

Gipuzkoako Foru Aldundia:

Osasun-balioespina egitea: eskatzailearen egoera fisikoa, psikikoa eta funtzionala.
SAKONTZEN

Baserria ikuskatzea.

VI. TITULUA: ERREKLAMAZIOAK, IRADOKIZUNAK ETA KEXAK EGITEKO SISTEMA

APLIKATUKO DIRA GIZARTE ZERBITZUETAKO ERABILTZAILE ETA PROFESIOALEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREI BURUZKO APIRILAREN 6ko 64/2004 DEKRETUA ETA 2004ko APIRILAREN 23ko EHAA ARGITARATUTAKO IRADOKIZUN ETA KEXEN ERREGIMENA.

Tutoretzapeko baserriak ondo funtzionatzeko eta egoiliarrari kalitatezko arreta emateko, kexa eta erreklamazio guztiak berehala jakinarazi behar dira, konponbideak lehenbailehen bilatzeko.

Erabiltzaileek, senideek, langileek eta arduradunek erreklamazioak eta kexak ahoz edo idatziz egin ditzakete, era honetan:

- Bide ez formalek: negoziazio adiskidetsua egiten da, arazoa gehienez 10 egunen buruan konpontzeko.

- Bide formaletik: tutoretzapeko baserrian edota Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan dagoen orria bete behar da eta Udaleko gizarte-laguntzaileari gutunazal itxi batean aurkeztu, hark erregistratu eta izapidetu dezan.

Halaber, erreklamazio-orriak egongo dira erabiltzaileen, senideen eta arduradunen eskura.

Horrez gain, baserrian postontzi bat egongo da, iradokizunak egiteko, konfidentzialtasun osoz.

ORDENANTZAKO ARAUAK HAUSTEA

UDALEKO GIZARTE ONGIZATE BATZORDEA

Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak jakiten eta frogatzen badu eskatzailea edo haren senideak ez direla egiatan aritu eta ez dituztela betetzen araudiko betekizunak, eskatzaileari jakinarazi eta hark egoiliar izateari utziko dio; gainera, ordaindutako dirua erreklamatu egingo da eta, arau-hausleak engainatu nahian aritu bada, jurisdikzio penalean salaketa jarriko da.

XEDAPEN OSAGARRIAK

Lehena

Asteasuko Udalak laguntza jasotzen dutenei zor-aitorpenaren dokumentua eskatuko die, onuradunen egoera ekonomikoa hobetzen bada kreditu-eskubidea erabili ahal izateko.

Halaber, eskatzaileen egoera ekonomikoa aldatzen bada, Udalari aldaketa horren berri eman behar zaio, prestazioak ematen jarraitu ala ez erabaki dezan.

EGOILIARRAK AUKERATZEKO BAREMOA**BAREMOA APLIKATZEKO ARGIBIDEAK**

Baremoak egoiliar izan daitezkeen egoeraren sei alderdi balioesten ditu: gizarte- eta familia-egoera, ezintasun egoera, etxebizitzaren egoera, egoera ekonomikoa, bizilekua eta «beste egoera batzuk»; azken horretan sartzen dira aurreko ataletan ez dauden eta profesionalak balioetsi beharrekotzat jotzen dituzten beste alderdi batzuk.

Alderdi bakoitzak bere pisu espezifikoa dauka kalifikazio globala ateratzeko garaian. Horregatik, atal bakoitzean lortutako puntuazioa faktore zuzentzaile batekin bidertu behar da. Faktore zuzentzaileak hauek dira:

1. GIZARTE- ETA FAMILIA-EGOERA.....	3
2. EZINTASUN EGOERA.....	0
3. ETXEBIZITZAREN EGOERA.....	3
4. EGOERA EKONOMIKOA.....	2
5. BIZILEKUA.....	3
6. BESTE EGOERA BATZUK.....	0,5

BAREMOAN BALIOESTEN DIREN ALDERDIAK**1. GIZARTE- ETA FAMILIA-EGOERA**

Aldagai honetan jasotzen da eskatzailearen edota haren bikotekidearen egoera familian eta gizartean, eta azpimarratzen dira babes-faltako egoerak:

TMBakarrik eta herrian seniderik gabe bizi direnak, gizartetik isolatuta edo abandonatuta, bizitoki egoki bat izateko aukerarik gabe.

Puntuak: 5

TMSeme-alabekin, senideekin edo etxebizitza partekatuz bizi direnak, liskar larri eta etengabeetan, tratu txarrak edo baztertze fisikoa edota psikikoa pairatuz, pilatuta eta bizikidetzat hartuta; horrelakoetan, familiagandik pixka bat urrunduta eta arnasa hartzea behar izaten da, edo, bestela, bizitoki egoki bat.

Puntuak: 4

TMBakarrik eta herrian seniderik gabe bizi direnak, gizartetik isolatuta, gizarte-baliabide egokirik gabe eta norbera isolatzeko edo utzikierian erortzeko arriskuarekin.

Puntuak: 3

TMAldi baterako senideen edo beste pertsona batzuen etxean bizi direnak, edo seme-alaben etxean txandaka dabilzanak, familiarekin tirabiratan; horrelakoetan, arretoa eta erreferentzia egonkorra behar izaten dira.

Puntuak: 2

TMOhiko bizilekuan bakarrik edo senideekin bizi direnak, arazo nabarmenik gabe, gizarte-baliabide egokiekin eta egokitzen hartzen diren baldintzetan.

Puntuak: 1

2. ETXEBIZITZAREN EGOERA

Aldagai honetan balioesten da eskatzailearen etxebizitza zenbateraino den egokia bizitzeko eta ze ekipamendu dituen, izan bizilekua etxe bat, zentro bat edo bestelako egoitza bat.

TMEtxebizitzarik ez dutenak edo etxebizitzara bueltatzeko aukerarik ez daukatenak, ostatuetan, harrera-zentroetan, osasun-zentroetan eta bestelakoetan aldi baterako eta larrialdi moduan hartu dituztenak eta hartutako plaza berehala utzi beharrean daudenak.

Puntuak: 5

TMGaua ostatuetan pasatzen dutenak edo etxebizitza partekatzen dutenak, haien ekonomia kaltetu ala ez, eta bizilekua epe laburrean edo berehala utzi beharrean daudenak.

Puntuak: 4

TMEtxebizitzan bizigarritasun-egoera txarretan eta ekipamendu desegokiekin usufuktu, errenta edo azpi-errenta egoeran bizi direla, hura uztera behartuta daudenak edo handik joateko agindua jaso dutenak.

Puntuak: 3

TMEskatzailea edo haren bikotekidea etxebizitzaren titularra izanik, edo bizilekua egonkorra izanik, etxebizitza hori herri-gunetik urrun badago eta behar bezalako sarbiderik ez badauka, garraio bide egokirik ez badu, arkitektura-oztopoak baditu eta bizitzeko baldintza egokietan ez badago (ganbarak, sotoak, etxabe hezeak, pitzadurak eta higiene eta iturriko ur falta).

Puntuak: 2

TMEskatzailea edo haren bikotekidea etxebizitzaren titularra izanik, edo bizilekua egonkorra izanik, etxebizitzak bizitzeko ezinbesteko baldintza guztiak betetzen baditu eta zerbitzu guztiak eskura badauzka.

Puntuak: 1

3. EGOERA EKONOMIKOA

B taula (ezkontide eta bikoteentzako) A taularen (bakarrrik bizi diren pertsonentzako) % 133 da; abiapuntua da dagokion urterako ezarritako kotizazio gabeko pentsioa.

<u>A TAULA</u>	<u>PUNTUAK</u>
Zenbateraino: KGP x 1.....	10
Zenbateraino: KGP x 1,5.....	9
Zenbateraino: KGP x 2.....	8
Zenbateraino: KGP x 2,5.....	7
Zenbateraino: KGP x 3.....	6
Zenbateraino: KGP x 3,5.....	5
Zenbateraino: KGP x 4.....	4
Zenbateraino: KGP x 4,5.....	3
Zenbateraino: KGP x 5.....	2
Zenbateraino: KGP x 5,5.....	1

KGP x 5,5 baino gehiago..... 0

B TAULA

PUNTUAK

Zenbateraino: KGP x 1,33 x 1.....	10
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 1,5.....	9
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 2.....	8
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 2,5.....	7
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 3.....	6
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 3,5.....	5
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 4.....	4
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 4,5.....	3
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 5.....	2
Zenbateraino: KGP x 1,33 x 5,5.....	1
KGP x 1,33 x 5,5 baino gehiago.....	0

4. BESTE EGOERA BATZUK

Hautagaiaren beharra areagotzen duten eta aurreko ataletan agertzen ez diren egoerak dagokion profesionalak balioetsiko ditu; atal honetan hautagaiak gehienez bost puntu lor ditzake.

5. BIZILEKUA

Bizilekuaren arabera hainbeste puntu gehituko zaizkio eskatzaileari:

Tutoretzapeko baserria dagoen eskualde berean bizi direnei10 puntu.

PUNTUAZIOA, GUZTIRA:

PUNTUAK 1 = FAKTORE ZUZENTZAILEA 1 = BENETAKO PUNTUAZIOA 1 =

PUNTUAK 2 = FAKTORE ZUZENTZAILEA 2 = BENETAKO PUNTUAZIOA 2 =

PUNTUAK 3 = FAKTORE ZUZENTZAILEA 3 = BENETAKO PUNTUAZIOA 3 =

PUNTUAK 4 = FAKTORE ZUZENTZAILEA 4 = BENETAKO PUNTUAZIOA 4 =

BUKAERAKO BENETAKO PUNTUAZIOA

EGOILIARREN BIZIKIDETZARAKO ARAUAK

1. Bakoitza nahi duenean jaikiko da, betiere gosaltzeko ordua baino lehen. Egoiliarren bat ondoezik badago, gaixotuta, arduradunari jakinarazi behar dio, hark arreta eman diezaion.
2. Kideen gelak errespetatu egin behar dira; ezin da baimenik gabe edo kidea ez dagoenean haren gelara sartu, hori falta larria da.
3. Egoiliarrek kontu handiz eman behar diete gertuko senideei bizileku eta telefono-aldaketaren berri.
4. Zaratarik ez ateratzeko kontuz ibili behar da, batik bat atsedeen-orduetan.
5. Logeletan ezin da arroparik garbitu edo zintzilikatu, ezta jakiak gorde edo prestatu ere.
6. Saiatu behar da logeletan elektrizitatezko, gasezko edo bestelako tresnak ez erabiltzen, itotzeko edo etxebizitzak su hartzeko arriskua sortzen baita.
7. Balio ez duten gauzak botatzeko lekuak egongo dira; komonetik edo leihotik behera ez da ezer bota behar.
8. Tresnaren edo altzariren bat ondo ez badabil, arduradunari jakinarazi behar zaio, lehenbailehen konpontzeko.
9. Egoiliarrek nahi dutenean sar edo atera daitezke etxebizitzatik; horregatik, bakoitzak giltza bat izango du. Etxebizitzatik ateratakoan, egoiliarrak arduradunari esan behar dio nora doan eta gutxi gorabehera noiz bueltatuko den.
10. Egoiliarrek nahi dutenean egin dezakete otordua etxetik kanpo; betiere, arduradunari 24 ordu lehenago abisatuta.
11. Egoiliarrek jaiak, asteburuak, oporraldiak, e.a. senideekin eta lagunekin pasa ditzakete, arduradunari gutxienez 24 ordu lehenago esaten badiote nora eta norekin doazen. Dena den, urtean 45 egun baino gehiago ezin dira etxebizitzarik kanpo pasa.
12. Gainontzeko egoiliarrei, langileei eta abarrei molestatzen dieten eztabaidak saihestu egin behar dira.

13. Bisitei dagokienez, ez da ordutegi zorrotzik egongo: egoiliarrek badakite otorduetan eta atsedendietan ez dela komeni bisitaririk izatea.

14. Janariari dagokionez, menu orokorra egongo da. Medikuak hala diagnostikatu duenetan bakarrik emango zaie egoiliarrei menu berezia.

15. Osasun-zerbitzuak mediku titularrak, erizainak eta larrialdi-zerbitzuetakoek emango dituzte, Tolosaldeko eskualdekoek, hain zuzen.

16. Egoiliarra ospitaleratuz gero, familia arduratuko da osasun-laguntzaz, arretaz, bisitez, gaixoa zaintzeaz eta abarrez.

17. Egoiliarrek ezin dute etxebizitzara altzaririk ekarri.

18. Egoiliarrek tutoretzapeko baserriko zerbitzuak behar bezala erabili eta errespetatu behar dituzte: logelak, bainugelak, jangela eta egongela (Julian Lizardi eraikinaren lehenengo solairuan eta bigarren solairuan ezker-eskuin daude).

Arau hauetan aintzat hartzen ez diren gaietan Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak ezarritakoa egingo da.

ARROPA

Markatutako arropa: gutxienekoa.

GIZONEZKOAK 6 musuzapi
6 azpiko arropa oso
4 galtzerdi pare
bata 1 eta zapatilak
4 alkandora
4 galtza
2 jertse
Hotza egiten duenerako arropa
Garbiketa-poltsa, beharrezkoa den guztiarekin.

EMAKUMEZKOAK 6 musuzapi
6 azpiko arropa oso
4 media edo panty
bata 1 eta zapatilak
4 alkandora eta 4 gona edo, bestela
4 soineko
2 jertse edo txaketa
Hotza egiten duenerako arropa
Garbiketa-poltsa, beharrezkoa den guztiarekin.

IV. ERANSKINA

Asteasu, 200

Alde batetik, jaunak/andreak, Asteasuko Udaleko alkate-lehendakariak

Eta bestetik, jaunak/andreak

AZALTZEN DUTE:

BAT. Asteasuko Udala Julian Lizardi tutoretzapeko baserriaren jabea dela; eraikina Asteasuko kale nagusian dago, 40 zenbakian.

BI. jaunak/andreak Asteasuko (Gipuzkoa) Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez aipatu tutoretzapeko baserrian sartzeko baimena eskatu zuela eta, Asteasuko Udaleko Gizarte Ongizate Batzordeak dagokion txostena egin eta gero, eskaera hori onartu egin dela,-(e)ko osoko bilkuran.

Horregatik, bi aldeek

HONAKO HAU ADOSTU DUTE:

BAT. Asteasuko Udalak jaunari/andreari baimena ematen dio Julian Lizardi tutoretzapeko baserriko zenbakidun gela erabiltzeko, etxebizitza partekatuz eta ondorengo artikuluetan ezarritako baldintzetan.

BI. Baserrian hauek egongo dira erabilgai:

- Esleitutako logela, banakoa edo partekatua (bikoitza)
- Baserrian denentzako diren guneak, partekatuta.

HIRU. Baserria erabat ekipatuta eta erabiltzeko baldintza egokietan egongo da, ez da kanpotik altzaririk eraman behar.

LAU. Asteasuko Udalak zerbitzu hauek bermatuko ditu:

- Elikadura aldetik, pentsio osoko erregimena.
- Etxeko-lanak egiteko laguntza.
- Jai-egunetan, gutxieneko zerbitzuak.

BOST. EGOILIARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

5.1. Tutoretzapeko ostatuko egoiliarrek bertako eguneroko lanak egin eta instalazioak zaindu behar dituzte.

5.2. Egoiliarrek, bere kasa, beharrezko iruditzen zaizkien objektu pertsonalak instalatu ditzakete, altzariak ezik.

5.3. Hauetarako eskubidea ere badute:

- a) Baserria erabiltzeko.
- b) Eguneroko lanetan behar duten laguntza profesionala jasotzeko.
- c) Baserrian bisitak jasotzeko.
- d) Baserriko eta bizikidetzako funtzionamenduan parte hartzeko, ezartzen diren ordezkartza-organoen bitartez.
- e) Gizarte-zentroko zerbitzu eta instalazioak erabiltzeko, kasuaren arabera.

5.4. Tutoretzapeko ostatuko egoiliarrek betebeharrak hauek dituzte:

1. Dagokion urtean baserriko egonaldiagatik ezarritako zenbatekoa puntual ordaintzea. Alde horretatik, egoiliarrek beren diru-sarreraren edozein aldaketaren berri eman behar dute.

2. Egoiliarrek bizikidetzako ezinbesteko arauak bete behar dituzte: elkar errespetatu, elkarrekin tolerantak izan eta elkarri laguntzeko prest egon behar dute.

3. Osasunak uzten dien heinean, egoiliarrek beren logela garbitu behar dute egunero.

4. Baserria eta bertako ekipamendua zaindu behar dute; ekipamendua gaizki erabiliz gero sortutako kalteen ardura egoiliarrena izango da.

5. Baserria utzi beharra edo nahia arduradunari jakinarazi behar diote, gutxienez hilabete aurretik, baserria betirako edo aldi baterako uzteko beharra edo asmoa.

6. Egoiliarrek tutoretzapeko baserriko zerbitzuak behar bezala erabili eta errespetatuko dituzte: logelak, bainugelak, jangela eta egongela (Julian Lizardi eraikinaren lehenengo solairuan eta bigarren solairuan ezker-eskuin daude).

SEI. Egoiliarrek kasu hauetan utziko dute tutoretzapeko baserria:

- Nahita baserriko bizikidetzak oztopatzen badute, beste egoiliarren eta langileen eskubideak errespetatzen ez badituzte, edo baserrian sartzeko gezurretan aritzen badira.
- Baserrira hainbat egunetan edo aldizka agertzen ez direnean, justifikaziorik gabe; barne-araudiko 5.3.4 atalean aipatu 45 egunak kenduta.
- Bere borondatez hala erabakitzen dutenean.
- Ezinduak direnean edo arreta berezia behar dutenean. Kasu horretan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek txostena idatziko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak balioespena egin ondoren eta SAKONTZEN gaitasun/ezgaitasun fisiko eta psikikoari buruzko taula oinarri. Txosten hori Gizarte Ongizate Batzordeak onartu egin behar du eta Asteasuko Udaleko osoko bilkuran berretsi egin behar da.
- Behin egoiliarraren ezintasuna balioetsita, baserrian baja emango zaio eta eskaera egin zeneko Udaleko Gizarte Zerbitzuen ardura izango da laguntza-egoitza batean sartzeko izapideak egitea.
- Hileroko diru-kuotak ordaintzen ez direnean.
- Sartzeko arazoak desagertzen edo aldatzen direnean.

ZAZPI. Asteasuko Udalari dagozkio kontratu honetako xedapenen egikaritze-eta interpretazio-eskumen guztiak; hala ere, epaimahaietan berrikus daitezke, hala badagokie, xedapen horiek oinarri hartzen diren erabakiak. Dokumentu hau irakurrita, eta ados daudela adierazteko, bi alderdiek kontratu honen bi ale sinatu dituzte, helburu bakar batekin, goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ASTEASUKO UDALAREN IZENEAN, ALKATEA

Izpta.:

EGOILIARRA

Izpta.:

ASTEASUKO UDALA

**ADINEKOENTZAKO BIZILEKUETAN SARTZEKO ESKAERA
SOLICITUD DE INGRESO EN ALOJAMIENTOS PARA PERSONAS MAYORES**

ADMINISTRAZIO-ESPEDIENTEA/EXPEDIENTE ADMINISTRATIVO

ZERBITZU MOTA / CLASE DE SERVICIO

1. Tutoretzapeko etxebizitzak / Viviendas tuteladas

AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK /DOCUMENTOS A PRESENTAR

1. Eskatzailearen eta ezkontidearen NAREN fotokopiak.
Fotocopia del DNI del /los/as solicitante/s, del/la cónyuge
2. Famili unitatearen diru-sarreraren frogagiria.
Fotocopia del/los justificante/s de los ingresos que perciba la unidad familiar.
3. Azken mediku-txostena.
Último informe médico.
2. Gizarte Txostena.
Informe Social
3. Udalaren konpromiso ekonomikoa.
Compromiso Económico Municipal
4. Jatorrizko Udalaren konpromisoa, egoiliarren ardura bere gain hartzeko, beste zerbitzuren bat behar badu.
Compromiso del Ayto de procedencia de hacerse cargo en caso de necesitar otro servicio
5. Sakontzen

OHARRA/ OBSERVACIÓN

Bikoteen kasuan, bi ezkontideek sarrera eskatzen badute, **eskaera-orri bana** bete beharko dute.

En caso de parejas, si ambos cónyuges solicitan el ingreso, deberán cumplimentar **una solicitud cada uno**.

1. IDENTIFIKAZIO DATUAK/DATOS DE IDENTIFICACIÓN

1. deitura..... 1er.apellido	2. deitura..... 2º apellido		
Izena..... Nombre	NA..... DNI	Sexua..... Sexo.....	Egoera zibila..... Estado Civil.....
Helbidea..... Domicilio	Telefonoa..... Teléfono		
Herria..... Localidad	Posta kodea..... Código postal		
Jaioteguna..... Fecha de nacimiento	Jaioterria..... Localidad de nacimiento	Probintzia..... Provincia	
Noiztik bizi da udalerrian?..... ¿Desde cuándo vive en el municipio?			
Noiztik bizi da Gipuzkoan? ¿Desde cuándo vive en el Territorio Histórico de Guipúzcoa?			

2. EZKONTIDEAREN DATUAK / DATOS DEL/LA CÓNYUGE

(Beti bete behar dira nahiz eta alarguna izan/ Rellenar siempre aunque sea viudo/a)

1. deitura..... 1er apellido	2.deitura..... 2º apellido	
Izena..... Nombre.....	NA..... DNI.....	18 urte baino gutxiagoko seme-alaba kopurua..... Nº de hijos menores de 18 años
Egoitzan sartzea eskatzen du (ezkontideak)?	BAI	EZ
¿ Solicita ingreso en Residencia (el cónyuge)?	SI <input type="checkbox"/>	No <input type="checkbox"/>

3. SEME-ALABA KOPURUA / Nº TOTAL DE HIJOS

4. DIRU-SARREREN ETA ONDASUNEN ZINPEKO AITORPENA

DECLARACIÓN JURADA DE INGRESOS Y BIENES

Neure/geure erantzukizunpean aitortzen dut/dugu honako ondasun higigarriak eta higiezin hauek ditudala/ditugula:
Declaro/amos bajo mi/nuestra responsabilidad que poseo/emos los siguientes bienes muebles e inmueble:

.....

1. LAN-ETEKINAK /RENDIMIENTOS DE TRABAJO PERSONAL

) Pentsioak, errentak eta sarrera pasiboak Pensiones, rentas y haberes pasivos	Urteko etekin garbia Rendimiento neto anual		
	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainerakoak Resto U.F.
	1.		
2.			
3.			
4.			
5.			
Gainerakoa:			
Resto			

B) Soldatak, lansariak eta alokairuak / Sueldos, jornales y salarios

1.			
2.			
Gainerakoa			
Resto:			

C) Langabezia-prestazioak / Prestaciones por desempleo

1.			
2.			
Gainerakoa			
Resto			

D) Famili laguntzak eta subsidioak / Ayudas y subsidios familiares

1.			
2.			
Gainerakoa			
Resto:			

E) PFEZ Araudian jasotako gainerako kontzeptuak / Resto de conceptos contemplados en la legislación IRPF

1.			
2.			
Gainerakoa			
Resto:			

**II. ENPRESA- ETA LANBIDE-JARDUEREN ETEKINAK
 RENDIMIENTOS DE ACTIVIDADES EMPRESARIALES Y PROFESIONALES**

A) Enpresa-jarduerak / Actividades empresariales

1.			
2.			
Gainerakoa			
Resto			

B) Lanbide-jarduerak / Actividades profesionales

1.			
----	--	--	--

2.			
Gainerakoa			
Resto:			

FAMILI UNITATEAREN ONDASUN HIGIEZINAK, JABETZAN NAHIZ USUFUKTUAN / INMUEBLES EN PROPIEDAD O USUFRUTO DE LA UNIDAD FAMILIAR

1. Ohiko etxebizitza / Vivienda habitual

Helbidea			
.....			
Dirección			
Herria.....	Balio katastrala.....	FUko jabetzaren %.....	
Localidad	Valor catastral	% Titularizad U.F	
Erregimena	Jabetza	Usufruktua	
Régimen <input type="checkbox"/>	Propiedad <input type="checkbox"/>	Usufructo	
Etxebizitza era honetan gera daiteke eskatzailea egoitzan sartu ondoren / Situación previsible tras el ingreso del solicitantes:			
FUko batek okupatua	Alokatuta	Kasu horretan, alokairuaren zenbatekoa zehaztu	
Ocupada por un miembro de la U.F <input type="checkbox"/>	Alquilada	En este caso indicar el importe del alquiler	
Beste senideren batek okupatuta	-----		
Ocupada por otro familiar			
Familiako ez den beste pertsona batek okupatuta			
Ocupada por un no familiar			

2. Bestelako ondasun higiezinak / Otros inmuebles

	(a)	Helbidea Dirección	Herria Localidad	b)	B. katastrala V. Catastral	Jabetzaren % % Titularidad	Jasotako alokairua Alquiler percibido
1.							
2.							
3.							
Best.							
Otros							

(a) Adierazi E (etxebizitza) T (trasteleku), G (garajea) L (lokala) B (Beste batzuk)
Indique P (piso). T (trastero), G (garaje) , L (local),O otros

(b) Erregimena : J (jabetza) U (Usufruktua)
Régimen: P (propiedad), U (usufructo)

3. Gehienez 5 urte lehenago eskualdatutako higiezinak / Inmuebles transmitidos (antelación máxima de 5 años)

	(a)	Helbidea Dirección	Herria Localidad	b)	B. katastrala V. Catastral	Jabetzaren % % Titularidad	Jasotako alokairua Alquiler percibido
1.							
2.							
3.							
Best.							
Otros							

(a) Adierazi E (etxebizitza) T (trasteleku), G (garajea) L (lokala) B (Beste batzuk)
Indique P (piso). T (trastero), G (garaje) , L (local),O otros

(b) Erregimena : J (jabetza) U (Usufruktua)
Régimen: P (propiedad), U (usufructo)

4. Famili unitatearen hipoteka-maileguak / Préstamos hipotecarios de la Unidad Familiar

	Deskribapena Descripción	Zenbatekoa Importe	Urte Kop. Nº años	Urteko kuota Cuota anual (*)	% egozgarria FUari % imputable U.F.
1.					
2.					

3.					
Best.					
Otros					

(*) Amortizazioa eta interesak barne / Incluyendo amortización e interés

IV. FINANTZA-AKTIBOAK / ACTIVOS FINANCIEROS

1. Kontu korronteak, libretak / Cuentas corrientes, libretas...)		Jabetzaren % / % Titularidad		
Deskribapena Descripción	Egungo saldoa Saldo actual	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainontzekoa Resto U.F
1.				
2.				
3.				
Beste batzuk Otros				

2. Zorrak, letrak, ordaindutakoak, obligazioak, bonoak..... Deudas, letras, pagares, obligaciones, bonos.....		Jabetzaren % a / % Titularidad		
Deskribapena Descripción	Egungo saldoa Saldo actual	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainontzekoa Resto U.F
1.				
2.				
3.				
Beste batzuk Otros				

3. Akzioak, partaidetzak..... / Acciones , participaciones		Jabetzaren % / % Titularidad		
Deskribapena Descripción	Egungo saldoa Saldo actual	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainontzekoa Resto U.F
1.				
2.				
3.				
Beste batzuk Otros				

4. Bestelako finantza aktiboak. / Otros activos financieros		Jabetzaren % / % Titularidad		
Deskribapena Descripción	Egungo saldoa Saldo actual	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainontzekoa Resto U.F
1.				
2.				
3.				
Beste batzuk Otros				

V. BESTELAKO ONDAREA / OTRO PATRIMONIO

		Jabetzaren % / % Titularidad		
Deskribapena Descripción	Balioa Valor (*)	Eskatzailea Solicitante	Ezkontidea Cónyuge	FUko gainontzekoa Resto U.F
Eskubide errealak/ Derechos reales				
Kontzesio administratiboak / Concesiones administrativas				
Jabetza intelektual eta industrial / Propiedad intelectual e industrial				
Kontratuzko aukerak / Opciones contractuales				
Bestelako ondasun eta eskubideak / Otros bienes y derechos				

(*) Ondarearen gaineko zergaren ondoretarako aitortutako balioa / Valor declarado a efectos sobre el patrimonio

VI. TRANSMISIOAK / TRANSMISIONES

Epigrafe honetan adieraziko da unitateko 3.005,06 eurotik (500.000 pezeta) gorako balioa izanik azken 5 urteotan egindako ondare elementuen transmisioa.

Deberán indicarse las Trasmisiones de elementos patrimoniales en los últimos 5 años, cuyo valor unitario supere las 500.000pta / 3.005,06 eur.

Eguna/Fecha	Deskribapena / Descripción	Balioa/ Valor	Hartzailearen identifikazioa/ Identificación del receptor

Eskaera honetan adierazitako datuak benetakoak direla aitortzen dut eta Administrazioak egiazta ditzan ikertzeko baimena ematen dut.

Declaro que son ciertos los datos que consigno en la presente solicitud y doy permiso a la Administración para comprobar la veracidad de los mismos.

Eskatzailea/k El/los solicitantae/s

Izpta./Fdo. :

VII. ONARPEN-BAREMOREN PUNTUAZIOA PUNTUACIÓN DEL BAREMO DE ADMISIÓN

	Puntuak / Puntos	Faktore zuzentzailea Factor Corrector			P. Guztira P. Total
		Tut. etxeb. / V. Tut	Eg. egoi./ C. Día	Egoitza / Resid.	
Gizarte- eta familia-egoera Situación socio- familiar		3	6	3	
Ezintasun fisikoa edo psikikoa (sakontzen) Situación de incapacidad física- psíquica		0(*)	3	3	
Etxebizitzaren egoera Situación de la vivienda		3	2	2	
Egoera ekonomikoa Situación económica		2	1	0,5	
Etxebizitza Residencia		1			
Beste egoera batzuk Otras situaciones		0,5			
PUNTUAK, GUZTIRA/ TOTAL PUNTOS					

(*) Hiru puntutik gorako kasuak ez dira onartzen / Se excluyen los casos por encima de 3 puntos.

Egindako eskaera eta dagoen premia ikusi ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu honek hau proposatzen du:

A la vista de la solicitud formulada y de la necesidad que presenta, este Servicio Social de Base propone:

Itxaron zerrendan sartzea

Su admisión en lista de espera

Itxaron zerrendan ez sartzea

No incluirla en lista de espera

Udal zigilua/ Sello del Ayuntamiento

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak / Por los Servicios Sociales

Izpta./ Fdo.:

.....

Lekua eta eguna

Lugar y fecha

VI. ERANSKINA

KONPROMISO EKONOMIKOA

.....-ko Udalak Asteasuko Udalari hilabetean euro ordaintzeko konpromisoa hartzen du jaunak/andreak Asteasuko tutoretzapeko baserrian ematen duen denboran.

Aurtengo ekitaldian eta datozenetan, aipatu pertsonaren egonaldiko gastuak aldatzen badira, zenbateko hori era aldatu egin daiteke.

Gastuak ordaintzeko zenbatekoa Udalak zehaztuko du.

.....-an, 200.....-(e)ko-ren-(e)an

UDALAREN KONPROMISOA

.....-ko Udalak konpromiso hau hartzen du:

..... Jaunaren/andrearen
(NA:.....) egonaldian, haren beharrak aldatzen badira eta zerbitzu bereziren bat edo Asteasuko Julian Lizardi tutoretzapeko baserrian eskaintzen ez den beste zerbitzuren bat behar badu,-ko Udal honek kudeatuko ditu egin behar diren izapide administratibo zein ekonomikoak, Julian Lizardi tutoretzapeko baserriko araudiaren harrera-prozedurari buruzko IV. TITULUAN zehaztutakoari jarraiki.

.....-an, 200....-(e)ko-ren-(e)an

ALKATEA

Izpta.:.....